

## Ubidetik Zeanurira zeharkaldia eta udalen batzarra hilaren 29an

17. orrialdea

## Haizea aurpegian liburuaren aurkezpena Igorren

Iker Yurrebasoren bigarren liburuaren aurkezpena hilaren 21ean, arrastiko zazpi eta erdietan izango da Iken. Irakurketea, musikea eta antzerkiak osotuten daben ikuskizun batez egingo da aurkezpena. Bertara doazan Begitu-lagunak doban jasoko dabe liburua, baita bertan Begitu-lagun egiten diranak be. 16. orrialdea



## Aitzol Atutxa dimoztarra azpitzapeldun Urrezko Aizkoran

14. orrialdea

TOKIKOM

# begitu

arratia ubide zeberio

# 150

2011ko urri bigarrenaren 18a  
hamabostekaria  
[www.begitu.org](http://www.begitu.org)

## Aurten argazki lehiaketak hiru sari

Argazki lehiaketako epaimahaiak emon dau ebatzia eta hiru izan dira argazki sarituak, bi izan beharrea. Izan be, argazki asko dira merezidu dabenak eta sari bi gitxitxu iruditu jako epaimahaiari.

**I**rabazlea Eneritz Atutxak Londonetik bialdutako "Gonea falta jakola?" izeneko argazkia izan da. Bigarren, Oihane Goioagak ateratako "Olatuen indarraren kontra" eta hirugarren Gara-zi Urienek bialdutako "Irati Urien" izenekoak.

Barruko orrialdeetan, 22 egilek egindako 24 argazki eder dakarguz munduko beste puntatik zein etxetik hur ateratakoak.

Zenbaki honek lau orrialde gehiago ditu argazki lehiaketako argazkiak eta Igorreko Lip Dub-ean egindakoak erakusteko. Izan be,

Igorreko Lip Dub-aren ganeko argazki-erreportajea be badakargu irakurleen eskakizunari erantzuteko.

Lip Dub-ak izan dauan arrakastea ikusita, Egaztea iratiak antolatuten dauan Lip Dub lehiaketara aurkeztea ebatzi dabe Igorreko Udalekoak. Bideoak interneten 8.100 bisitatik gora euki dauz daborduko eta grabazioan parte hartu eban jentea BEGITURA deika dabil argazkiak erakusteko eskatzen.

8. 9. 10. 11. 12. eta 13. orrialdeak



Lehiaketako argazki irabazlea. Eneritz Atutxak Londonen ateratakoa.

### ARTEA

## Eskolea zana kultur etxe



Kultur etxe izateko eraigi eben, eskola moduan hainbat urtetan erabili dan etxea. Igaz umeak eskola barria estreinau eben eta aurten hasi dira alkarteak kultur etxe moduan erabilten. Han dagoz, BEGITU, Musika Eskolea eta Artea Kirol eta Kultur Taldea. Laster hartuko dabez eurentzako gordetako gelak eskulan ikastarokoak, jubiladuak eta gazteak, gazte leku bat izateko. 5. orrialdea

### ARRATIA

## Aurrekontuak egiteko batzarrak

Datorren urteko aurrekontuak egiteko Lemoan, Diman, Zeberion eta Igorren auzo eta sektoreko batzarrak egiten dabiz. Igorren egin ditue batzarrak, Lemoa eta Diman hileon egingo ditue eta Zeberion datak ipini barik dagoz. Batzar honeen helburua "herritarren eretxiak eta nahiak jasotea" da aurrekontuetan horreek kontuan izateko, alkateen esanetan. 7. orrialdea

Gure bainuetxeaz eta bere ur mineral medizinalaz, naturaz eta ondo izate hutsaz goza ezazu.

Zirkuitu termala, fisioterapia, depilazinoak, masajeak, estalkiak, arpegikoak, Garra Rufa arrainak, binakako tratamenduak...

Balneario Areatza  
Areatza

Askatasuna 50, bis - 48143 Areatza  
94 657 54 50 eta 94 657 27 05  
[www.balnearioareatza.com](http://www.balnearioareatza.com)

### ARRATIA

## Sinadurak jaso dabez herritarrak Osakidetzan aldaketak eskatzeko

Mila berrehundik gora sinadura jaso eta Osakidetzako Barne Eskualdean entregau zituan hilaren 6an, horretarako sortutako Arratiako herritar talde batek. Kejea telefono bidezko arreta zerbitzuan erantzungailu automatikoa ipini ebelako sortu zan eta bide batez, beste aldarrikapen batzuk egiteko aprobezau dabe, Osasun zerbitzua hobetu daiten. 5 orrialdea



## KANTU HERRIKOIAK

## EPERRAK

Eperrak oinak gorriak ditu  
papar hazurra lumatsu  
mendi altura igon ezkerro  
hegaz eiten dau gozatsu.

Neure andrea azkena da ta  
egin eidazu parkatu  
eurrerantzean nik egingo daz  
behie ta txala loditu.

Ai zu gizona beti hor zabiz  
epertxu horren atzean  
hortxe daukazuz hiru-lau pare  
San Juan Gazteluko atzean  
[Gaztelu atzean]  
[Gazteluatzean]

2009ko abenduan, BEGITU al-  
dizkariak "Moret"en kantauk  
argitaratu ebazan. Bertan  
eta kantu hau deskribadu  
orduan, hirugarren estrofa le-  
gez honako hau etorren:

Eskopetea ona dozu  
txakurra askoz hobe  
kostako jatzu tiro bategaz  
hilten eper pare.

Oilagorra txori ona da eta  
eperra askoz hobe,  
hik be mahaipera ez dok botako  
haren okela sobrea.

Kantuaren egilea, antza danez: Dionisio Berasaluze Iza "Moret" (Igorre 1910-1962).

1979an, Igorren, Ruper Lekuek jasoa.

## Eperrak



## TELEFONO INTERESGARRIAK

## Larrialdiak

Galdakaoko Ospitalea 94 400 70 00  
S.O.S. DEIAK 112

## Guardiako Farmaziak

## Urri bigarrenaren 17tik 23ra

Goikoetxea. Dima. Ugarana 33  
Tel.: 94 673 70 54

## Urri bigarrenaren 24tik 30era

Zamalloa. Areatza. Askatasun kalea 15  
Tel.: 94 673 93 22

Urri bigarrenaren 31tik  
zemendiaren 6ra

Badiola. Artea. Herriko Plaza 7  
Tel.: 94 631 73 11

Zeberioak ez dau guardiarik egiten.

## Medikuak

Arantzazu: 94 631 56 89

Artea: 94 673 92 11

Areatza: 94 631 71 52

Bedia: 94 631 34 13

Dima: 94 631 56 30

Igorre: 94 600 74 63

Lemoa: 94 631 31 16

Ubide: 945 45 03 61

Zeanuri: 94 673 91 49

Zeberio: 94 648 20 79

## Udaletxeak

Arantzazu: 94 631 56 89

Artea: 94 673 92 05

Areatza: 94 673 90 10

Bedia: 94 631 42 00

Dima: 94 631 57 25

Igorre: 94 631 53 84

Lemoa: 94 631 30 05

Ubide: 945 45 03 22

Zeanuri: 94 673 91 46

Zeberio: 94 648 10 79

## Udalen Mankomunitatea

94 631 17 17 / Faxe 94 631 92 15

## Gorbeialde

94 631 55 25 / Faxe 94 631 71 01

## Parketxea

94 673 92 79

## Igorreko Kultur Etxea

94 673 62 51

## Gorbeialde Irratia

94 631 52 90

## Trenak

Euskotren 902 543 210

## Bizkaibus\* 902 222 265

## Zeanuri-Lemoa-Ospitalea-Bilbo

Lanegunetan: Lehenengoa 05:00etan.

Ordu erdiro: 05:15etik 06:45era.

Orduro: 06:45etik 21:45era. Azken zerbitzua  
22:00etan.

Zapatuetan: Lehenengoa 05:00etan.

Orduro: 05:45etik 21:45era.

Jaiegunetan: 07:45etik 21:45era orduro.

## Bilbo-Ospitalea-Lemoa-Zeanuri

Lanegun eta zapatuetan: 06:15etik 22:15era  
orduro.

Jaiegunetan orduro 07:15etik 22:15era.

## Durango-Lemoa-Ospitalea-Bilbo

Lanegun eta zapatuetan: 06:30etik 22:30etara  
30 minuturo, azkenengoa 22:15ean  
Galdakaoraino.

Jaiegunetan: 07:00etatik 22:00etara 30  
minuturo, azkenengo zerbitzua 22:45ean  
Galdakaoraino.

## Bilbo-Ospitalea-Lemoa-Durango

Lanegun eta zapatuetan 06:30etik 22:30era  
30 minuturo.

Jaiegunetan 07:00etatik 22:30era 30 minuturo.

## Ubide-Otxandio-Lemoa-Bilbo

Ubidetik urteerak, lanegun eta zapatuetan:  
06:45etik 20:45era bi ordu behin.

Jaiegunetan: 08:45etik 20:45era bi ordu behin.

## Otxandiotik urteerak:

Lanegun eta zapatuetan: 06:55etik 20:55era  
orduro.

Jaiegunetan: 08:55etik 20:55era orduro.

## Bilbo-Lemoa-Otxandio-Ubide

Lanegun, zapatu eta jaiegunetan,  
Otxandiora: 06:45etik 20:45era orduro.  
Ubidera: 06:45etik 20:45era bi ordu behin.

## Zeanuri-Lemoa-Bilbo (Autopistatik)

Lanegunetan: 07:00etan lehena, eta 08:15etik  
21:15era orduro.  
Zapatu eta jaiegunetan ez dago zerbitzurik.

## Bilbo-Lemoa-Zeanuri (Autopistatik)

Lanegunetan: 07:00etatik 21:00etara orduro.  
Zapatu eta jaiegunetan ez dago  
zerbitzurik.

## Artea-Bilbo

Lanegun eta zapatuetan: 07:00, 15:30 eta  
20:00.

Domeketan ez dago zerbitzurik.

## Bilbo-Artea

Lanegunetan: 05:45, 14:15 eta 18:45.  
Zapatuetan ez dago 05:45ekoa.

Domeketan ez dago zerbitzurik.

## Zeberio-Bilbo

Lanegun eta zapatuetan: 09:15, 11:15, 13:15  
eta 17:45.

Jaiegunetan (Arrigorriagaraino): 08:15, 11:15,  
14:15, 17:15 eta 20:15.

## Bilbo-Zeberio

Lanegun eta zapatuetan: 08:15, 10:15, 12:15  
eta 16:45ean.

Jaiegunetan (Arrigorriagatik): 10:40, 13:40,  
16:40 eta 19:40ean.

## La Union\* 94 427 11 11

## Bilbo-Gasteiz

Lanegunetan: Ubidekoak 09:15ean urtetan  
dau eta Otxandioak 16:00etan.

Zapatuetan: Ubidekoak 09:00etan eta  
16:30ean urtetan dau Bilbotik.

Jaiegunetan: Ubidekoak 10:00etan urtetan dau  
eta Otxandioak 18:30ean.

## Gasteiz-Bilbo

Lanegunetan: Ubidekoak 09:00etan eta  
16:15ean urtetan dau Gasteizetik eta  
Otxandioak 10:30ean.

Zapatuetan: Otxandioak 10:30ean urtetan  
dau Gasteizetik eta Ubidekoak 16:30ean.

Jaiegunetan: Ubidekoak 16:30ean urtetan  
dau Gasteizetik. Otxandioak ez dago.



Argitaratzailea: ZERTU Kultur Elkartea.

Helbidea: Herriko Plaza 24, 48142 Artea.

Telefonoa: 94 631 73 14.

Helbide elektronikoa: [begitu@topagunea.com](mailto:begitu@topagunea.com)  
[www.begitu.org](http://www.begitu.org)

Erredakzino burua: Beatriz Azpiri. Telefonoa: 94 631 73 14 eta 649 979 112.

Kudeatzailea: Inigo Iruarrizaga.

Erredakzino taldea: Urtzi Barrenetxea, Ainhoa Duñabeitia, Maialen Egileor, Irati  
Urien eta Jon Urutxurtu.

Maketazinoa: Inigo Iruarrizaga.

Publizitatea: Inigo Iruarrizaga. Telefonoa: 94 631 73 14 eta 649 979 115.

Banaketea: June Egileor, Maria Rodriguez eta Pablo Rodriguez (Lemoa eta Bedia),  
Julen Eskalante eta Ibai Milikua (Areatza), Iratxe Arribas eta Xabier Mendieta (Zeanuri),  
Berbizkunde Arroita (Zeberio), Amaia Uriarte eta Eneko Iriondo (Dima), Nerea Romero  
(Igorre) eta Peio Murgoitio (Arantzazu, Artea eta Ubide).

Tiradea: 6.400 ale.

Inprimategia: Iparragirre Editoriala.

Ale kopurua 6.400 / Lege gordailua SS-512/02 / ISSN zenbakia 1579-5519

## Babesleak:



Kultura Sailak (Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza)  
diruz lagundutakoa



Bizkaiko Foru Aldundia  
Diputación Foral de Bizkaia  
Kultura Saila  
Departamento de Cultura



bbk



## ZEURE BERBEA

### Euskal Memoria Arratian

Aspaldiko kontua bada be, orain bidaltzen dot karta hau, ez ahaztuta euki dogulako, gogoratu beharreko erantzunen zain egon garalako baino.

Bagilearen 30ean Igorreko Kultur Etxeko Lasarte Aretoan Euskal Memoriaren aurkezpena egin zan (eskerrik beroenak hara joan zinieno). Bertan ikuskizun polita izan genduan, abeslari apartaz gain, hizlari bikainak euki genduzan. Frankismoak errepresaliautako arratiar guztiai omenaldia egin jakien, guztien ordezkari 22 andra-gizon izan genduzala.

Hainbateri eskerrak emotea jagoku: Igorreko Udalarri lehenik, areto ederra ixtearren; Arratiako

udalerrri guztiai gero, Zeanuri, Areatza, Artea, Dima eta Lemoakoari gastuak ordaintzeko diru laguntzatua eskeintzearen (85 € udalerriko). Baina Bediako Udalak erantzun be ez dau egin (ez ete dabe euren burua arratiartat?). Hori ez da txarrena, euskeraz egiteko aukerarik be ez deuskue emon udaletzeko bulegoan.

Aaa... eta Arantzazuko alkate andereak diru laguntzatxu hori emongo ebala behin eta birritan esan ostean... ez ei jako bere gustuko ekimena irudititu... eta ez dauz 85 euroak emon gura izan. Frankismoak errepresaliautakoak omentzeagaitik ez da izango, ala bai? Berak erantzun beharko.

SEBAS ANGOITIA  
ARTEA

Zure eretxia agertu gura badozu, Zeure Berbea atala zabalik daukazu. Ez da komenidu makinazko 15 lerro baino gehiago idazterik gutunotan. Izena, telefonoa, helbidea eta Nortasun Agiriaren zenbakia agertu beharko dira. Laburtu behar izan ezker, BEGITUK eskubidea dauka horretarako. Gutunak hona bidali: Zertu Kultur Elkartea. Herriko plaza, 24. 48.142 Artea edo [begitu@topagunea.com](mailto:begitu@topagunea.com) helbidera.

## GEURE BERBATEGIAREN LEIHOTXUA

ANGEL LARREA ETA JUAN REKALDE

### Ziza/zuzua



Arratiako leku gehienetan udabarrian eta udagoienera urtetan dauan onddoari ziza esaten jako. Baina Lemoan eta Diman esate baterako, zuzua da (suséa, ahoskatuta). Gauza bi gertatzen dira bada: batetik, euskalkian lege orokorra dana lez, /s/ egiten dirala /z/ guztiak: eta bestetik, u/e alternantziagaz holango bikoteak ugari dira: uger/igeri, untza/iltze, ule/ile, zulo/zilo... Idazterakoan, zalantza barik, idatzi beti zetaz.

## ERETXIA

### Aro baten amaiera

¶ Zelan igarten dan kazetari gehienak Mac erabilten dabela". Batek baino gehiagok holantxe azaldu dau Apple informatika etxearen sortzaile Steve Jobsen heriotzeak hedabideetan sortu dauan burrunbea. 1984ko lehen Macintoshen sasoiak, Appleren marketing arduradunak bete-betean asmatu dabe markeari erlijino kutsua emoten, eta fededunetako asko eta asko hedabideen esparrukoak dira.

Ezin ukatu Mac ordenagailuak goitik behera astindu ebela egunkari eta aldizkariak egiteko prozesua, izugarri erraztuz eta merketuz. Gaurko ikuspuntutik, orrialde bakotxaren diseinua pantailan zuzenean ikusi eta aldatu ahal izatea oinarri-oinarrizko idea da, baina fondo beltz eta testu berdeko pantailen sasoi haretan, zientzia-fikzinoa zan.

Jente arruntarentzako ordenagailuak egin gura zituan Jobsek, eta hareri esker hedatu dira gaur egun sistema guztietan topau daikeguzan hainbat kontzeptu: sagua, karpeten bidezko antolamentua, aginduak emoteko "menuak"...

Sasoi modernoagoetara etorrita, Jobs eta bere lantaldearen ideak beste eraldaketa asko ekarri dabez, edo bide barriak zabaldu. Musika saltzeako denda birtualak, esaterako, esperantza barriak ekarri deutzaz dobako deskargen ondorioz bizirauteko arazo larriak dituan musikearen industriari. Eredu beretik abiatuz, softwarea eta egunkariak be saltzeako formulak garatzen dabiz. Zentzu horretan, ekarpen handiak egin deutzaz Jobsek informazioaren gizarteari, eta ulergarria be bada hainbat sektoretan errespetu handia irabazi izana.

Baina hori dana ukatu barik, komenidu da gogoratzea Applek



### JOXE ROJAS

Topaguneko Hedabide Saileko arduraduna

eta Jobsek berak be badituela euren alde ilun edo, gitxienez, zalantzazkoak. Lehenengo eta behin, gogoratu beharra dago Steve Jobsek ezer gitxi "asmatu" dauala. Izatekotan, gizonak ideak, kontzeptuak izan ditu buruan; baina horreek inoz ez ziran produktu bilakatuko Appleren ingeniari, diseinugile eta marketing adituakaitik ez balitz.

Bestalde, Appleren arrakastearen gakoetako bat bere produktuen izaera guztiz itxia da. Mac OS sistema eragilea Appleren ordenagailuetan bakarrik ipini daiteke, iPad, iPhone eta abarretan Applek alde zurretik onetsitako aplikazio eta edukiak bakarrik instalatu daitezke, batzuetan zentsuratik oso gertu kokatuz...

Kontuak kontu, esango neuke Jobsen heriotzeak aro baten amaiera markauko dauala. Ordenagailuak etxean daukaguz jadanik, Jobsek gura eban moduan, eta orain badirudi hurrengo errokea poltsiko guztietara be eroatea dala. Horretan be "bisionariorik" izango ete dogu? Hemendik 10 urtera ikusi beharko!

# Kendall Languages

Europa mailan sano ezaguna dan ingelera ziuertagiria lortu gura dozu?

## zatoz

Holan bada: %95eko arrakasta daukagu

Irakasle oso prestatua dago eta gehien ama hizkuntza ingelera da. Bagilean (ekaina) zentroan bertan egingo dan Trinity azterketara aurkeztu zintekiz. Enpresetarako ingelera.

Kendall Languages, jentea prestatzen

Elxalde 4 behea  
48.140 Igorre (Bizkaia)  
94 657 73 48  
[www.kendall-languages.com](http://www.kendall-languages.com)



**LUMATUTEN****JUAN MANUEL  
ETXEBARRIA****Errekaria  
uriolarik hara**

**U**riolarik harako errekaria ikustekoa izaten da. Esakereak esan beistike, kontuz sua, edurra eta uragaz belanetatik gora diranean. Hemen, Zeberioko ergoien ur txikiko erreka daukagu, baina, hor elbarreneko ur handiko errekak kaltealangoak egiten dabez errekari guztian, horreek akordatzako hodei astrapalen osteko jausteok.

Gure erreka, leku batzuetan sakonetatik dator, baina, beste batzuetan agiriagotik. Errekaria zelaia goa danean gazea esaten deusagu eta sakon datorrenean garratza; eskilarari moduan. Eskilarak be, gazak eta garratzak dagoz, maila txikikoak eta handikoak. Eta, ba, kalteak be, gehiago edo gitxiago, danean. Ikustea izaten da errekaria uriola handien ostean.

Uriolarik hara, hemen ergoie-

neko erreka-arroko errekarian, zerean, errekearen alderdi bietan, hainbat gauza agertuten da agirian, zeinda, lur birrina, orbelak, sasiak, zaputzak, abarrak, sas-taparrak, arbolaren bat be igual trabesetara, inguruko bedarra be zapal-zapal eginda, harrixiria be bai, harrixokorrak, errekariak, trongoak, mokorrak eta holango gauza asko. Baina, gure ume denporan, mirarik handiena garautekoari egiten geuntsan, garautekoak, zeinda, gaztaina garauak, edo urretxak, intxaurrak edo sagar garauak topetan ibiltzen gintzazan, orduan ez geunkan eta, gaurko gozo gauzarik jateko. Garautekoa zer jatzun? Ba, bai gizona, horreek garaua heldu eta berez jausten diranak zorura, gaztaina, urretxea, mesmerua, sagarra, madaria eta horreek. A! ez deusut esan, baina hori errekari lur birrina, orturako eroaten gendun eta harrixiria, harrixokorrak eta harriak, ba, hormak egiteko edo etxeko arregluetarako.

Kalteak barriz, hor behetako errekarian, kalte handiagoak egiten ebazan uriolak. Eta ezagun-ezagun izaten zan horko behetako. Errekaria be diferentea da elbarrenetik gehiago, eta behera egin ahala, akabua, dana txarrikaria, antoju hutsa. Hortik, dana da erropa zaharra, plastikua, papela eta denodua errekari guztian. Motz emoten dau emon be begietara; ergoieneko errekaria izan ez egiteko!

**ZERTZEAN****MAITE YURREBASO**

Tarte hau zeuretzako be dago zabalik, holango sormen-lanak BEGITUN argitaratu gura izan ezkerro, eskatu egiguzuz argitaratzeko baldintzak [begitu@topagunea.com](mailto:begitu@topagunea.com) helbidean.

**BEGI TXINDORRA**

**H**ona dakarguzan argazkia eta testua Arantzazuko Bilduk bialdu deuskuz:

"Arantzazuko Bildu Kultur Batzordeak animauta, eta herriko gazteak batera, herriaren ondare kulturalagaz eta etnografikoagaz zerikusia daukan murala egin dogu. Mural horretan 1900 urte inguruko argazki zahar bat marraztu dabe.

(...)

Bildu Kultur Batzordeak eskerrak emon gura deutsez bertan parte hartu daben herritar guztiai, eta etorkizunean egingo diran ekimenetan parte hartzeako konbidapena luzatzen dau".

Interesgarria da 1900 urte inguruko argazki baten murala zein hori egiteko prozesuaren barri izatea. Poztekoa, Bilduk hartu-emon onak gura izatea prensagaz. Izan be, BEGITUK inoiz baino errazago lortzean dau informazioa Bildukoak diranean informazioaren iturriak. Pozik dago alde horretatik BEGITU, konbenziduta dagoalako informazioa herritarren eskubidea dala eta benetako informazioak beti eragiten dauala justiziaren alde.

Baina BEGITURENTZAT ez da nahikoa maitale bakarra, eta bailarako beste ideologia politikoen kortejoa be gurako leuke. Haren barri gehiago jakin, kolore horreek be agertzeko eta Arratiako informazioaren murala ez daiten kolore bakarrekoa izan. Izan be, BEGITUK ustrukua (ostadarra) dauka gustuko.



**Gorosti**  
LORAZAINTZA

Lorategien Diseinu eta Gauzatzea  
Ureztaketa instalazioa  
Mantenua eta Inausketa

Bildosola Industrialdea E2 Pab. 48. 142 Artea  
Tel: 94 673 96 34 Faxa: 94 673 96 88  
[gorosti@gorostiscsl.com](mailto:gorosti@gorostiscsl.com)

**agoa** Ortodontzia  
hagin klinika Implantateak  
Estetika

Marina Urigoitia Aidedoa Odontologia

Bidebarri 1, behea  
48140 Igome-Bikala  
T. 94 631 50 39

Marina Urigoitia Aidedoa  
R.P.S. 2006

**EXCAVACIONES**  
**MARGOIZA**

Isaki  
Martin Gorostiza

Ubideratzeak  
Lurrerauzketak  
Baso pistak  
Ur Putzuak  
Era guztietako hondeaketak

Bº URIBE - 48144 ZEANURI  
Tel. 607 272 424  
610 271 128  
Tel/Fax: 94 433 22 28  
e-mail: [margoiza@euskolnet.net](mailto:margoiza@euskolnet.net)



## ARRATIA

# 1.226 sinadura entregau ditue herritarrak Osakidetzako Barne Eskualdeko administrazioan

### Erredakzioa

Arratian 1.226 sinadura batu eta hilaren 6an Osakidetzako Barne Eskualdeko administrazioan entregau zituan horretarako sortutako herritar talde batek, Osakidetzak telefono bidezko arreta zerbitzuan erantzungailu automatikoa ipini ebalako keja egiteko.

Zerbitzua hobetuteko lau gauza eskatzeko egin eben sinadura bilketea: "telefonoaren bestaldean persona bat egoteko, zerbitzuak eta ordutegiak zabalteko, euskerazko arreta bermatzeko eta zerbitzuak herritarren beharretara egokitzeko" hain zuzen be, taldeak jakinarazo

dauanaren arabera.

Orriak eskuragai egon dira Igoerreko Udalean, kiroldegian eta

Kultur Etxean, eta dendari eta tabernari gehienak be parte hartu dabe kanpainan. "Erantzuna sano

ona izan da. Anbulategia moduko gai bat izaterakoan, nabaritzen da jentek interesa daukala, gure osasuna da jokoan dagoana". Taldekoak kalera be urten dira artezean sinadurak batzera. Jaima bat be ipini eben Inbiu egunean.

Antolatzaileak pozik agertu dira emoitzeagaz. Izan be, hilabete baten jaso dabez mila sinaduratik gora, jentea osasungintza publikoagaz kezkatuta dagoan seinale. "Argi itxi gura dogu arratiar asko kezkatuta gagozala osasun zerbitzu publikoen kalidadearen inguruan eta beharrezkoa ikusten dogula pauso bat harago joatea" adierazo dabe.

Osakidetzaren erantzuna hila-betegarrenarako espero da.



Igorreko anbulatorioa.

## DIMA

# Barrearen onurak landuko dabez ikastaro baten

### Erredakzioa

Dimako Andreaizeak taldeak barre-terapia ikastaroa antolatu dau. Hilaren 22an izango da eta 6 orduko iraupena izango dau. Ikastaroaren helburuak "inhibizioak gaintzea, barrearen gozamenen murgiltzea, une zorionsuak lortzea eta barrearen erregistroak ezagutzea" dira Andreaizeak-ekoak jakitera emon dabenaren arabera.

Plazak mugatuak dira eta 20 lagunek emoten dabenean izena zarratu egingo da. Informazio gehiagorako eta izena emoteko 615 728 849 telefonora deitu.

## ARTEA

# Eskolea izan zanak kultur etxe erabilera izango dau

### Erredakzioa

Hainbeste urtetan eskola moduan erabili dan eraikina kultur etxe izateko jaio zan eta erabilera hori emongo jako gitxi barru. Holan, sakabananduta egon diran alkarte eta ikastaroak etxe bakar baten batuko dira.

"Herritarrak batzorde bat egin dogu kulturearen eta etxe honen erabilerak adosteko. Batzorde hori udaletxeko alderdiak eta herriko kultur taldeak osatu dabe; hau da, jubiladuak, Artea Kirol eta Kultur Taldea eta gazteak" azaldu deutso BEGITURI Alberto Etxebarria Arteko alkateak.

Eskolea izandako etxean, aldizkari honen erredakzioa, Musika Eskolea, eskulnetako ikastaroak,

Artea Kirol eta Kultur Taldea, jubiladuak eta gazteak dagoz edo egongo dira, momentuz. Baina gela gehiago be badagoz.

### Musika Eskola eta AKKT hasi dira gelak erabilten

Gela batzuk erabiltzailei egokitu, eta pintau behar badira be, lehenengo taldeak hasi dira etxek aldatzen. Musika Eskolea, berbarako, edota Artea Kirol eta Kultur Taldea.

"Epe luzeagora joango da jubiladuena. Ze jubiladuak gauza bereziak behar dabez eta apur bat egokitu behar jakie lekua. Eskulnetako ikastaroak, barriz, laster izango dira eurentzat egokitutako lehenengo solairuko gela baten" dino alkateak.

## AREATZA

# Areatzako bainuetxean arrainak emondako masajeak hartu daitezke

### Erredakzioa

Urri hasieratik, Areatzako bainuetxean, esku eta oinetako azala esfolietako arrainak erabilteko aukerea dago. Arrain honeek, *Garra Rufa* izenekoak, azalean dagozan hildako zelulak xurgatzen ditue, bide batez, masajea eginez.

"Metodo hau lasaitzailea eta atsegina da eta azala leun, osasuntsu eta ondo garbituta ixten dau. Ganera arraintxu honek -hiru eta sei cm. artekoak- *anthracina* izeneko substantzia bat botatzen dabe. Substantzia honek sendatzeko gaitasun handia dauka" jakinarazo dabe Sasoibide taldekoak.

### Sasoibideren zentro eta produktua

Sasoibide taldeak, Areatzako bainuetxeaz ganera, beste lau zentro kudeatzen ditu: Wine Oil Spa Villa de Laguardia, Biasterin; Thalasso Real, Santanderren; Spa Relais

Lakua, Gasteizen eta Quiros Fisioterapia zentroa, hau be, Gasteizen. Sasoibidek Natursalud produktuen erosketa eta banaketa saila dauka, eta Joseba Ayarza dimoztar zuzendari nagusiak sortutako Maddi Ayarza kosmetika marka.



Garra Rufa arrainak oinetan.



Arteko kultur etxea.

**BATZ**  
BATZ, S. KOOP.  
Tomea auzoa, 32  
48140 IGORRE (BIZKAIA)

- Trokelgintza
- Automobiletarako Sistemak

Beharrea beharrez,  
euskeraz eginez

Enbata  
Batzen gaitu

**MONDRAGON**  
INDUSTRIAL CONTRACTS



## IGORRE

**AMEk eta Banco Sabadell Guipuzcoanok lankidetzahitzarmena sinatu dabe****Erredakzioa**

Arratiako Merkatarien Elkartek (AME) eta Banco Sabadell Guipuzcoanok urri lehenengoaren 26an sinatu eben laguntza finantzarioa hitzarmen bat. Sinatutako akordioagaz hainbat zerbitzu eta produkturako baldintza mesedegarriak lortu ahal izango dabez alkarteko kideak, baita be euren lehen graduko familiakoak eta komertzio

horreetako langileak.

Akordioaren helburua da 60 kideetik gora daukazan alkarteko partaideen beharrian finantzarioai erantzutea, batez be lan-jardunetik sortutakoak. Hitzarmena Igorreko banketxean sinatu eben; batetik, Pedro Kortazar Gardokik, AMEko lehendakariak; eta, bestetik, Juan Ramon Rey Garciak, Sabadell Guipuzcoano taldeko Bizkaia Ekialde guneko zuzendariak.



Juan Ramon Rey eta Pedro Kortazar.

## ARRATIA

**Arratiako Eleizearen Eguna, Artean, urri bigarrenaren 28an****Jon Urutxurtu**

Ospakizunak 25. urteurrena beteko dau aurten. Urri bigarrenaren 28an, barikuan, arrastiko 19:00etatik aurrera, Arratiako Eleizearen Eguna ospatuko da Arteko parrokan. Orain dala 25 urte ospatu zan lehenengo aldiz Arratiako eleiztar guztien ospakizun hau, Andoni Gerrekaetxebarria nagusi zala; beraz, aurten zidarrezko ezteguak beteko dauz. Urte bakotxean Arratiako parrokia

desbardin baten ospatzen da.

Egitarauari jagokonez, hasierara Arratiako Asis sarea taldekoeen esku egongo da eta eurak zuzenduko dabe ondo etorria eta otoitzaldia. Ondoren, ikus-entzunezko baten bitartez, igazko kursoan egindako ekintzai errepasoa emongo jakie: Errogatibea Urkiolara, Bakearen aldeko ibilaldia Ziortzara, Gabon jai Bedian, Joxe Arregiren hitzaldia Igorren... Jarraian, zeanuriztar gazteak *Ortzadarra* izeneko antzerki laburra aurkeztuko dabe; gero, *Ipuinak Parrokiak Arnasbarrizeko* izenburua deroan Arratiako Eleizearen azken liburua aurkeztuko da, eta amaitzeko, aurtengo kursoaren agenda azaldu eta zabalduko da.

Dana dala, egun horretan hiletarik balego arrastiko 17:00etara aurreratuko litzateke ospakizuna.

Informazio gehiago: 94 631 55 99/94 673 67 27 edo arratiatik@gmail.com eta www.ariatia.tk webgunean.

## IGORRE

**Euskerea Agoan! egitasmoa martxan**

Martxan dago dagoaneko laugarren urtez, bai eskolan eta bai familian euskerearen erabilera handitzeko Euskerea Agoan! proiektua.

**Erredakzioa**

Umeen euskerearen erabilera apala ikusita, Ignazio Zubizarreta eskolako Euskera Normalkuntza taldeak, Igorreko Udaleko Euskera Zerbitzuagaz batera diseinutako proiektua da hau. Egitasmoa umeai, gurasoai eta irakasleai zuzenduta dago.

"Gurasoak izango dira proiektu honetako protagonista nagusiak; izan be, jakina da umearentzat bere ingurune hurbileko helduak eredu dirala: irakasleak, zainzaileak, begiraleak, eta batez be, gurasoak" dinoe antolatzaileak. Prozesu horretan umeak barneratuko dauz, hizkuntza ezagutzea, erabilteko ohitua eta hizkuntzagazko jarrera. "Hori holan, urtailetik hasita irakasleak "Gurasoen norabide berean" ibilteko ikastaroa jaso dabe. Honen bidez, 2011-2012 ikasturterako euskerearen erabilera bultzatzeko eta familia bidezko euskerearen transmisioan eragiteko plan bat zehaztu da" azaldu deutso BEGITURI Amaia Arauzo Igorreko Euskera teknikariak.

**Euskerea Agoan! proiektuko jarduerak**

Euskeraz ez dakien gurasoentzako ikastaro bat antolatuko da. Eta "Euskera. Entra un idioma en casa" izeneko berbaldia zuzenduko jakie euren. Euskeraz ez dakien hainbat gurasoren kasuan, seme-alabak

eskolan hastea izan daiteke etxera euskerea sartzeko lehenengo urratsa. Berbaldi honetan horri buruz egingo da berba eta hainbat aholku emongo dira. Hitzaldia urri bigarrenaren 26an izango da, Igorreko Kultur Etxean, 18:30ean.

Guraso euskaldunentzako, barriz, "Zergatik ez" tailerra egongo da. Tailerrean "guk hitzun moduan, aukeratuten doguzan hizkuntza jarrerak daukien eraginaz hausnartuko da; bai eta, euskereagazko jarrera baikorrak sustatu be" dino teknikariak. Zemendiaren 2an izango da tailerra, Igorreko kultur etxean, 17:30ean.

"Berbalagun familian" da gurasoai zuzendutako beste ekintzetako bat. Honetan, guraso euskaldun zaharrak eta barriak alkatzen dira, eta astean behin euskeraz berba egiteko gunea izaten da. "Ekintza honeguz, gurasoen hizkuntza ohituretan eragin gura da, guraso euskaldun barrien euskera maila hobetu, arratiako hizkerara hurbilpena modu naturalean egiten lagundu eta oro har euskera batua egiten daben gurasoen eta arratiera egiten daben artean hizkuntza-komunitate bakarra osotuten lagundu".

"Euskarara hurbiltze ikastaroa" dogu Euskera Agoan! egitasmoaren barruko beste jarduerak bat. Ikastaro hau 60 ordukoa da eta euskera ia ezagutzen ez daben gurasoai



Zuzertxu.

zuzenduta dago.

Badago beste jarduerak bat maila antzekoa daukien gurasoentzako: AEK-ko euskera ikastaroa (udaltxearen diru laguntzaz). Ikasleen behar eta ordutegiari egokitutako ikastaroak izango dira, astean 8 ordukoak.

Eta umeai zuzenduta be egongo da ekintzarik: urtailetik bagilera bitartean eta eguerdietako tartean, euskera erabilteko motibazio-saioak egingo dira, hatakoxe trebatuta dagozan begiraleakaz. "Jolasaren bidez hartu-emonak euskeraz izatea lortu gura da, eta euskerazko esamoldeak eredu hartuta, lagunarteko hizkera ez formala lantzea" dino teknikariak.

Ekintzetan parte hartzeako Inazio Zubizarreta eskolako idazkaritzan edota Igorreko Udaleko Euskera Zerbitzuan emon behar da izena.

## IGORRE

**Erosketa-burdiak AMEren eskutik****Erredakzioa**

Igorren Erosi kanpainaren barruan, urri bigarrenaren 18tik aurrera AMEk erosketa-burdiak ipiniko ditu alkartean dagozan dendetan, behar dabezan bezeroak erabili daiezan. Kortesiak burdixuak deituko dira honeek karrook eta erabili ostean,

dendan itzuli behar dira.

Zozketea be egingo dabe AMEkoak. Hirurogei erosketa-burdi zozketatuko dira. Zozketan parte hartzeako txartelak alkarteko saltokietan bananduko dira. Izan be,

"fideltasunak saria dauka" Igorreko dendetan erosteak, AMEkoai esker.

**Otzarea 1870 zenbakiarentzat**

AMEk urri bigarrenaren 8an zozketatu eban Arratiako produktuez betetako otzarea Miguel Angel Bermejo Etxarrii susertau jakon. Mendilurreko Alejandro Ibarra eta AMEren presidentea dan Pedro Kortazarrek emon eutsien saria.



Pedro Kortazar, Miguel Angel Bermejo eta Alejandro Ibarra.

**Umeen moda 0-20 urte**

- Babi
- Ray
- Aranda
- AKC
- Guecater
- Arandiga
- Giandab
- Leiz
- Hassana

**sein**

LEHENENAKAI IGORRE, 27 • 946 314 296  
seinmoda@hotmail.com

**GARANTXE Autoeskola**

TEORIA EUSKARAZ  
ZEIN BIDERAZ

Balmenak: A1, A, B75

Lehenakurri Agirre 31  
Iruña: 94 673 71 32  
94 673 71 32 (Iruña)  
garantxe@euskaltel.net

**AKESOLO, S.A.**

GARRAIOAK, NEUMATIKOAK ETA ZERBITZUAK

Garbe, 29    Telefonoa: 94 673 60 14    IGORRE BIZKAIA



## ARRATIA

# Auzo batzarrak dabiz egiten Bilduk alkatatzea daukan herrietan

### Erredakzioa

2012 hurreratzan dagoala eta alkatetza Bilduk daukan herrietan auzo batzarrak egiten dabiz herritarren eretxiak jasoteko eta

datorren urteko aurrekontuak egiteko orduan kontuan izateko eretxiok, alkateen esanetan. Hilaren 7an Lemoako alkateak aurkeztu eban aurrekontu parte-hartzeileen prozesua.

### Sei auzo batzar

Lehenengoz egingo dira Lemoan ezker abertzaleak deitutuen aurrekontu parte-hartzaileak. Prozesua hilaren 5eko plenoan abiatu zan eta hilaren 10etik 22ra, sei auzo-batzar egingo ditue. "Aurten lehenengo urtea danez, auzo-batzarrak baino ez doguz egingo. Aurerrago sektorekako batzarrak be egingo doguz" esan eban Saioa Elejabarrieta Lemoako alkateak aurkezpen honetan. Auzo batzarrak astelehen, bariku eta zapatu goizetan izango dira.

Batzarrotan herritarren ekarpenak jaso eta gero, udaleko batzordeetan eztabaidatuko dira aurrekontuak alderdi guztien parte-hartzeagaz eta plenoan onartuko. 2012ko hasieran espero dabe Lemoako aurrekontuak onartutea.

### Diman be auzo-batzarrak

Udalak diru kontuen azalpenak eta ondorioak emoteko eta auzotarren eretxiak eta eskariak jasoteko hilaren 7an hasi ziran Diman auzo batzarrak egiten eta hilaren 22an egingo dabe azkena. Artaunen, Ziarrustan, Olazabalen, Indusin, Oban, Bikarregin eta Bargondian egin ostean, hilaren 21ean, Ugarran batzera deituta dagoz auzotarrak eta hurrengo egunean, azkenengo biak egingo dira San

Balendinen eta Lamindaon.

### Zeberion datak zehazteko

Zeberion datak zehaztu barik dagozala baina hiru auzo-batzar egiteko asmoa dagoala azaldu deutso BEGITURI Ana Belen Alberdi Zeberioko alkateak. "Lehenengo urtea danez, Zeberioko hiru leku aukeratu eta inguruko auzokideak batzea da gure asmoa. Herriko alkatetakoak be egingo doguz batzarrak; hau da, gurasoakaz, gazteakaz, jubiladuakaz eta Austarri Kultur alkatetakoak".

### Igorren auzo eta sektorekakoak

Igorren urte batzuk daroet batzarrak egiten aurrekontuetan herritarren ekarpenak jasoteko. Hemen, urri lehenengoan egin zituen batzarrok. "2012ko udaleko aurrekontuak zertara bideratu egindako zazpi auzo eta sektore batzarretan ebatzi da. Udalean dagozan hiru alderdien artean, Bildu, EAJ-PNV eta Igorre Danontzat herri plataformaren artean adostutako lana izan da eta ehun eta berrogeita hamar herritar batu dira batzarrotara" dinoe udaletik. Auzoetako batzarrez ganera, kultura eta kiroleko sektoreko batzarrak be egin eben. "Aurten, barikuntza legez proposamen zabalak eroan dira batzarretara eztabaidatu eta lehentasuna zeri emon ebazteko".

## ARRATIA

# Alkarretaratzea eta ekintzak hispanidade eguna ez ospatuteko

### Irati Urien

Urri bigarrenaren 12an, Ikasle Abertzaleak deituta "jai egun arrotzari insumisinoa egiteko" alkarretaratzea egin zan Igorreko Kultur Etxearen parean. Arratia Institutuko 27 ikasle ganera, institutura joan ziran eta ekintza batzuk egin zituen bertan.

"Goizeko hamarretan ikastetxe teko atea zabaldu eta handik gitxira txalaparta tailerra hasi zan. Ostean, 11:30ean, hamaiketako. Bien bitartean, bideo batzuk ipini ziran, Kukutza edota hil honen 5ean Villabonan ospatuko dan Ikasle Egunaren ingurukoak. Ostean, triliguismoaren eta Til ereduaren ganeko berbaldia egon zan" azaldu dabe ikasleak.

Honetatik aparte, Ikasle Abertzaleak-en ustez "hil honen 25a be jai arrotza dala eta", Gernikara joateko deialdia zabaldu eben.



Aitor Erauzkin eta Saioa Elejabarrieta Lemoako alkatea.

Instalazio industrialak · Mantenimendu industrialak · Tresneria eta kontrola Merkataritza  
estlabezimenduen instalazioak · Etxebizitzaren erreformak edo berrikuntzak · Antena instalazioak  
Mantenimendua · TDT · Telekomunikazioak · Herriko argiak · Potentziadun koadroak



Arratian kultura bultzatzen

**indar**  
instalazio elektrikoak

Bildosola industria gunea, pab. E-3/4 · 48.142 Artea (Bizkaia)  
Tel.: 94 655 47 19 · Fax-a: 94 404 06 70 · E-posta: indarsl@indarsl.es



## ARGAZKI LEHIAKETEA

# Gona kontuak irabazle

Argazki lehiaketaren oinarrietan agertuten zan moduan sari bi emon beharrean, hiru sari emon ditu lehiaketako epaimahaiak.

**Erredakzioa**

Eta honeek dira argazki sarituak:

**1. saria:** "Gonea falta jakola?" Eneritz Atutxak Londonen, Spittafieldeko merkaduan ateratako argazkia.

**2. saria:** "Olatuen indarraren kontra" Oihane Goioagak Ghanan ateratako argazkia.

**3. saria:** "Irati Urien" Garazi Urienek Nafarroan Irati ahizteari ateratako argazkia.

Sano gatxa izan da ebatzi bat hartzea eta epaimahaiak, gitxienez, 5 sari emotea gura eban. Izan be, puntuaketea emotean bardinketea egon zan bai lehenengo, bai bigarren postuetan. Holan, epaimahaiak irabaztea merezi ebela joten eban argazki

bi sari barik geratu dira. Eta hori, sailkapen luze eta gatx baten ostean, zeinetan argazki eder asko kanpoan itxi behar izan dauan!

**1. saria "Gonea falta jakola?"** Lehenengo saria, astegoiien bat Nafarroako landetxe baten Eneritz Atutxak lortu dau "Gonea falta jakola?" argazkiagaitik. Epaimahaiak originaltasuna izan dau kontuan eta saritu gura izan dau hori topetako eta konposizino hori egiteko behar dan bestelako begiradea.

**2. saria "Olatuen indarraren kontra"** Bigarren saria 100 euroko bonoa AMEko dendetan gastetako Oihane Goioagak eroan dau. Esan behar da Goioaga igazko

irabazlea dala.

Epaimahaiak argazkiaren indarra saritu gura izan dau. Konposizinoaren aldetik Géricault-en *Le Radeau de la Méduse* ekarten deusku gogora, baina etsipenaren orde, argazkiak ausardia, indarra eta adorea transmitiduten dauz. Ganera, olatuen orroa entzun eta zipiritinak ikuslea busti egiten dabela dirudi.

**3. saria "Irati Urien"** Hirugarren saria, aurreikusita ez egoana, 50 euroko bonoa AMEko dendetan gastetako da. Garazi Urienek, bere ahiztea eta gure kolaboratzailea dan Iratiri, egin eutsan argazki hau. Epaimahaiak, argazkiak daukan iradokitzeko gaitasuna saritu gura izan dau.

Besteak beste, hurbiltasuna, etxekotasuna, isiltasuna eta zorionaren antzeko sentimentuak iradokitzen ditu argazkiak.

Eta esandako moduan, argazki on pilo! Europa, Asia, Afrika eta Ameriketean, mendi puntan,

itsaso azpian, uri jentetsu edota basamortuetan, gure irakurleak ateratako leku eta jente ikaragarri ederren erretratuak bialdu dabez BEGITURA; aurkikuntza horreen lekuko. Hurrengo orrialdeetara dakarguz batzuk.



Alaia Ozerinjauregik Oslon ateratako argazkia.



Nahia Galarrek Egiptoko piramideetan ateratako argazkia.



Eneritz Atutxa, lehiaketaren irabazleak bialdutako argazki bat.



Pam Migliacciok Senegalen Aste Santuan ateratako argazkia.



Oihane Goioaga igorretarrak Ghanan ateratako argazkia. 2. saria.

Zugaitik BEGITUten dogu  
A.P.I. 495  
www.inmobiliarialarrea.com

**INMOBILIARIA**

Lehendakari Agirre, 8 behea  
48140 Igorre

Tfnua: 94 631 80 04

**begitu**  
amata ubide soberio

**ellauri**  
HOTELA

Naturaz sortuta

Landa Turismoa  
Enpresa Zerbitzuak

Aitzusta 38, 48144 ZEANURI | +34 946 317 888 | ellauri.com

**OPEL**

**ibalgane, s. Coop. Ltda.**

Estazioa, 15  
48330 LEMOA (Bizkaia)  
Telfa: 631 33 30 - 631 31 31  
Fax: 631 36 15





Garazi Urienek Nafarroan ateratako argazkia. 3. saria.



Pam Migliacciok Senegaletik bidalitako argazkia.



Cristina Vidalek Delhin ateratako argazkia.



Eider Ayerdik Tibeteko Komik herrian ateratako argazkia.



Iratxe Gondrak Islandiatik bialdutako argazkia.

## Gure Ikastetxeak

Arratiako Herri ikastetxeak 2 urtetik 18ra. Euskalduna, kalitatezkoa, herrikola

**Arratia BHI**  
Tel.: 94 673 62 37 Faxa: 94 673 62 37 Igoerre

**Ikastola Arratia HI**  
Tel.: 94 673 90 65 Faxa: 94 673 90 65 Artea

**Zubialde HI**  
Tel.: 94 648 06 82 Faxa: 94 648 14 84 Zeberio

**I. Zubizarreta HI**  
Tel.: 94 673 60 22 Faxa: 94 673 60 22 Igoerre

**Areatzako Herri Eskola**  
Tel.: 94 673 90 93 Faxa: 94 673 90 93 Areatza

**Zeanuri HI**  
Tel.: 94 673 93 33 Faxa: 94 673 93 33 Zeanuri

**J.B. Eguskiza Meabe HI**  
Tel.: 94 631 32 28 Faxa: 631 32 28 Lemoa

**Ugarana HI**  
Tel.: 94 631 55 32 Faxa: 94 631 92 11 Dima

Haur hezkuntza, Lehen Hezkuntza, Derrigorreko Bigarren Hezkuntza, Baxilegiak, Hezkuntza zikloak

**JANDONIZ**  
nagusientzako etxea  
residencia para mayores

Jandoniz, 2 - 48390 BEDIA Bizkaia - tel. 94 631 31 30 - www.jandoniz.com

**expert** **ARRATIA**

E-posta: expertarratia@cordevi.com  
Lehendakari Agirre, 16 Tel. 94 673 60 55  
48140 IGORRE (BIZKAIA) Fax 94 631 52 80

Tel. 94 631 60 06 • email: info@aramotz.com

## ARA MOTZ

Lanetan O Jabetzen!

Plazeta Ugarana 2 et. - 48141 Dima - Bizkaia - www.aramotz.com





**Ruth Martinez. Creta.**



**Maitane Diez. Shanghai, Txina.**




**Miren Apraiz. Ghana.**



**Jorge Alonso. Ourense, Galiza.**



**Joseba Undurraga. Llauset-eko urtegia, Huesca.**



**Juan Rekalde. Puigcerda.**



**Florentina Porto. Cedeira, Galiza.**



**Iratxe Gondra. Seljalandsfoss-eko ur jauzia, Islandia.**



**Sara Gutierrez. Lekeitio.**



**Haritza Iturbe eta semea.**



**Nerea Basterra. Messanges, Landak, Frantzia.**



**Leire Orue. Cala n'brunt, Menorca.**



**Eva Martinez. Rovinj, Kroazia.**



**Ainhoa Rodriguez. Montardo.**



INBIU 2011 LIP DUB IGORRE

# Inbiu eguneko argazkiak ikusgai ipinteko orri gehiago ditu zenbaki honek

Zazpirehun lagun inguru bildu ziran Igorren Inbiu Igorreko Euskera Eguna ospatuteko eta bertan grabau zan Lip Dub-ean parte hartu eben gehienak.

## Erredakzioa

Askok momentu edo egun hare-tako argazkirik ez eben egin, eta BEGITURA jo dabe argazki eske. Eskaerea sano handia izan da-nez, BEGITUK zenbaki honetan orri gehiago ateratzea ebatzi dau egun horretako argazki partida bat eskeintzeko.

Ganera, Egaztea irratiak Lip Dub lehiaketea antolatu dau. Igorren egin zan euskerearen aldeko Lip Dub-a lehiaketa horretara aurkeztea ebatzi zan urri bigarrenaren 5ean egin zan Euskera Planeko batzarrean, Amaia Arauzo Igorreko euskera teknikariak jakitera emon dauanaren arabera.  
"Gaia landu zan eta ebatzia

ago batez hartu zan. Orain Egazteak egingo dauan aurre-aukeraketan Lip Dub-a hautatua dan ala ez ikusi beharko da eta hortik aurrera, botoa emoteko epea zabalduko da" dino teknikariak.

Urri bigarrenaren 17an, arrastiko 15:00etan 8.100 personak ikusita eukien jada Igorren egin zan euskerearen aldeko Lip Dub-a.



**Txalaparta ikastaroa 011- 012** 

Emon izena 615 731 182 (Saioa) telefonoan urri bigarrenaren 25a orduko.




Espazioa eta denbora eta zu eta ni. Zu eta ni nahi duguna egiteko. Hurbildu, beldurrik ez. Lehen aldia beti da lehen aldia, ez besterik. Zu hasi, nik segi. Arin, ez, arin ez, hasi astiro. Kontuz, kontuz ibili. Ni zure menpe, zu nire menpe. Gure denbora daukagu nahi duguna egiteko. Esperientatu, gozatu. Zuk zure espazioa nigana heldu arte. Eta alderantziz. Hartu denbora zure denbora. Binomioa trinomioa bihurtu da. Erabil dezagun tresna. Gozatu dezagun beste batekin batera. Integra dezagun hirugarren hori gure artean. Besterik ez gure artean. Eutsi egiozu senda. Orain nik, orain zuk. Isiltasuna. Zure arnasa entzuten dut beste soinu batzuen tartean. Jarraitu erritmoa. Ez gelditu. Soinu bat. Bi soinu. Isiltasuna berriz. Bikoa. Herrena. Isiltasuna. Itakun. Txahal apaña. Isiltasuna. Eta soinuaren segidak batzen gaitu.







Argazkia: Mintegi.



Argazkia: Mintegi.







## FUTBOLA

# Beñat Etxebarria: "Amama biekaz akordau nintzan gola sartu nebanean"

Azkenengo egunotan entzun dogu Juventus bere atzetik dabilala. Baina momentuz, Beñat Etxebarria igorretarrak Betisen dauka burua. Eta Betisegaz, hain zuzen be, jokatu eban lehenengokoz San Mamesen. Ondo jokatu eban ganera, eta gola be sartu eban. Igorretik ibili dala aprobezauz, BEGITUK beragaz egon gura izan dau.

**Maialen Egileor****Zelangoak izan ziran partidua-  
ren aurreko orduak?**

Goizean zehar lagunak egoteko aukera euki neban, euren artean Anaitzegaz, Bilbao Athletic-en nigaz jokatu eban laguna. Euri esker ez neban partiduan asko pentsau eta orduak arin pasau jatazan. Gero bazkaldu eta siestea bota neban. Baina arrastian pare bat ordu euki nebazan hotelean bakarrik egoteko, buruari bueltak emoteko eta orduan bai, orduan oso nerbio ipini nintzan.

**Eta San Mamesera salto egin zenuanean zer sentidu zenuan?**

Beti, txikitatik izan da nire ametsa San Mamesen jokatu eta azkenean, Betisegaz lortu dot. Horregatik, zelaia zapaldu neban momentuan pozik, oso pozik egon nintzan. **Imajinetan zenuan partidua hasi aurretik, gola sartuko zenua?**

Ez, nire helburua zan gauzak ondo egitea eta disfrutetea. Gero subertea euki neban eta gola sartu neban.

**Argi euki zenuan faltea zeuk botako zenua?**

Partidua baino lehen entrenadoreak esan euskun faltarik edo penaltirik baegoan Salva Sevillak edo nik bota behar genduala. Orduan gure artean berba egin eta gelditu ginan penaltirik balego berak botako ebala eta nik faltak jaurtiko nebazala. Justo faltak eta penaltia, biak egon ziran.

**Nogaz akordau zinan gola sartu zenuan?**

Familia osoagaz, baina batez be, amama biekaz akordau nintzan. Ez dagoz gure artean eta gustauko jatan eurak gol hori ikusi ahal izatea.

**Aldatu zinuanean zale askok txaloak egin eutsuezan. Zer suposatu eban horrek zuretzat?**

Gauzak ondo egin nebazan seinale izan zan eta asko poztu nintzan. Ez neban pentsauko San Mamesek holan agurtuko ninduanik.

**Zelan da izar handien kontra****jokatuetea?**

Hasieran arraro egiten jatu eta inponidu egiten dau, baina behin baloia jokoan ipinita, bardin da aurrean nor euki.

**Momentuz hor goian zagozie, haren pare. Presinorik ez daukazuelako?****Beñat Etxebarria Igorreko Lasarte parkean.**

## AIZKOREA

## Aitzol Atutxak bigarren egin eban Urrezko Aizkoran

**Erredakzinoa**

Aitzol Atutxa azpitxapeldun izan da Urrezko Aizkoran Lopez Azpilikueta-  
ren atzetik. Finala, Basaurin jokatu zan hilaren 12an. Lehia gogorra egon zan lehenengo bien artean, baina azken enborrean adarra atera jakon dimoztarrari eta Azpilikueta-  
aurrea hartu eutsan.

Txapeldunak 22 minutu eta 42 segundotan egin eban beharra. Dimoztarrak, barriz, 23 minutu eta 26 segundo behar izan zituan. Hirugarrena Jose Mari Olasagasti izan zan.

## TRONTZEA

## Bizkaiko Trontza Txapelketea hilaren 29an

**Irati Urien**

29an jokatuko da Bizkaiko Trontza Txapelketea Getxon. Eguerdian egingo dan saioan Getxoko pareja bate-  
tik aparte, arratarrak be ez da faltako. Arkaiz eta Oier Arana, Julen Etxebarria eta Igor Astondoa, Jon Loiola eta Ibai Arana, Jaime Atxa eta Jon Intxaurre ibiliko dira izerdi bitsetan, sasoi onena nork daukan erakusten.

**Elexalde**  
Meri eta Josetxu  
Pinturak (kolore guztiak)  
Egur babesleak  
Suteak eta behe-suak  
Garbiketa produktuak  
Lehendakari Agirre, 31 bis - 48140 IGORRE (Bizkaia)  
Tel: 94 673 62 34 - Fax: 94 673 72 38

**indar**  
instalazio elektrikoak  
Bildosola Industriaidea, pab. E 3-4  
48142 ARTEA - BIZKAIA  
t. 94 655 47 19  
indarsi@indarsi.es • www.indarsi.es

NAIARA Hertz Klinika  
Lehendakari Agirre, 19  
48140 IGORRE  
94 631 52 26

**Orre**  
FOTOKOPIAK - PAPERBENDA  
E. Agirre, 7  
48140 IGORRE (Bizkaia) Tfonoa: 94 622 64 78

*Los Chopos*  
neurritza egindako armairuak  
Anda, Los Chopos, 33 (Nagari) Tel.: 94 430 40 94  
**Esposizinoa eta fabrika Lemoan**  
Pozueta poligonoa, Lemoa 94 631 34 44  
www.armariosloschopos.com

**AKETEGLA**  
**GAY & LORA**  
**IGORRE**

Emilio Goitia banatzaile ofiziala  
**San Miguel**  
Ardoak Edariak  
94 673 64 02 Industriaidea E-3 Pabeloia (Igorre)

AHOLKULARITZA:  
LIGE-LAN ARLOAN  
**ZUZENBIDE**  
ZERGA ETA DERU KONSTRUKTAN  
ONDASUN HIGIEZINEN  
ASIGURUTAN  
Bilbao Arana, 5 Tfonoa: 94 673 71 41 - Faxa: 94 673 64 01 - 48140 IGORRE

**Jose Luis Corbacho**  
**pintura lanak**  
Sabino Arana, 3, 3a  
Igorre 48140 Bizkaia  
Tel: 94 673 70 87  
Tel: 609 79 40 54

**axular**  
kultur etxea  
Agirre Lehendakaria 4 - 94 673 70 92  
axularke@gmail.com

**ekin s.a.**  
CONSTRUCCIONES  
LAN PUBLIKOAK  
INDUSKETAK  
GARRAIKAK  
UR SAREAK  
SANEAMENTU SAREAK  
BASERI ETIA BASOKO BIDEAK  
PABELLOAK  
URBANIZAZIOAK  
Iturritz barrera 8 - 48141 Dima (Bizkaia)  
Tel: 94 631 72 57 Faxa: 94 673 95 25  
e-posta: c.ekin@telefonica.net

**Pinturas Aratia**  
Javi Morato  
Tel. 628 443 992



## MENDIA

# Arratia-Ubide-Otxandio XII. Mendizale eguna

Hilaren 23an, Arratia-Otxandio-Ubide mendizaleen eguna ospatuko da.

### Erredakzioa

Aurtengo martxea Zumeltzatik Igorrera izango da, 22 km. ingurukoa. Izena emoteko antolatzen daben mendi taldeetara jo behar da. Taldeok, Motxogan Igorren, Ganzabal Mendi Taldea Lemoan, Miru Gain Otxandion, Joko Alai Zeanurin eta Amexier Ubiden dira.

Arratia-Otxandio-Ubide mendi martxea, orain dala 12 urte sortu zan edade guztietako mendizaleak urtean behin behintzat batzeako asmoz. "Ez da ohiko

mendi martxa bat, alkarregaz, patxadaz, alkar agurtuz eta berba egiten, urtean behin baino ikusten ez doguzan lagunakaz ibilteko eta hartu-emonak sendotuteko asmoagaz egiten dana baino" dinoe antolatzaileak.

Honeen ustetan, Arratian gero eta mendi talde gehiago dagoz eta alkarregaz egin beharko leukiez ekintzak mendizale guztiai helitzeako eta eraginkorrakoak izateko baliabideak eta diruak erabilten.

### Ibilbidea

Aurten, antolatuteko Igorrekoen

txandea izan da eta ibilbidea honako hau izango da: Zumeltza-Indusi-Baltzola-Garaio mendia (gura dauanak)-San Lorenzo (hornidurea)-Oba-Artaun-Igorre.



Zumeltzatik Igorrera 2011n.

## ARGAZKI LEHIAKETEAREN

# Ganzabalen V. Argazki Lehiaketea zabalik

### Erredakzioa

Bere bazkideentzako V. Argazki lehiaketea antolatu dau Ganzabalek. Betiko moduan modalidade bi eta hiru sari egongo dira eta argazkiak aurkezteko epea zemendiaren 9an amaituko da. Modalidadeak Ganzabal Mendi Taldearen ekitaldiak, eta Mendia eta natura orokorrean dira. Gainera sari popularra be egongo da.

Hiru argazki gehienez aurkeztu ahal ditu parte-hartzaile bakotzak eta CD edo DVD baten Ganzabalen egoitzara eroan edo argazkilehiaketaganzabal@gmail.com posta elektronikora bialdu behar ditu argazkiok.

### Sariak

Modalidade bakotxean hiru sari egongo dira. Mendi taldearen ekitaldiak modalidadean zein Mendia eta natura orokorrean modalidadean lehenengo saria 50 euro gehi beste horrenbeste Ganzabal Mendi Taldeak 2012an egingo dituan urteerak ordainduteko izango da. Bigarren sariak 35 euro gehi 35 euro izango dira, eta hirugarrenak 25 euro eta beste 25 euro urteeratarako izango dira modalidade bietan. Sari popularra, barriz, 50 euro gehi 50 euro urteeratarako eta hurrengo urteko agendearen portadan agertuko da sari hau lortu dauan argazkia.

## FUTBOLA

# Lemoa jaitsiera postuetan eta Arratiako neska zein mutilak lehenengo dira

### Maialen Egileor

Lemoak ez dau bat be ondo hasi denporaldia. 27 puntu posibleetik 9 bakarrik lortu ditu eta. Azkeneko jardunaldian Mirandes euki dau aurrez-aurre eta 3-0 galdu dau. Holan, jaitsiera postuetan dago eta hamazazpigarren da sailkapenean. Baina danak ez dira barri txarrak. Federazio Kopan

EAEko txapelkun gelditu da eta aurrera segiduten dau.

### Arratia

Arratiako taldeak ondo baino hobeto dabiz. Bai neskak eta bai mutilak partidu guztiak irabazi dabiz eta lehenengo dira sailkapenean. Azkeneko jardunaldian, neskak 0-1 irabazi deusie La Mercederi eta mutilak 0-9 Bakiori.

## RUGBYA

# Kadeteak, txikerrak baina gogorak

### Ainhoa Duñabeitia

Esaerak dinoan moduan, "Arratiako zekorra, txikerra baina gogorra", halan dabiz zekortuak azken asteburuetako partiduak irabazi dabiz eta. Lehenengokoa, urri bigarrenaren 8an euki eben San Txismen, R.C. Rioja Sport Tavern 30 aniversarioren aurka. Zekortuak 24-22 irabazi eben.

Uri bigarrenaren 15ean osteran Irun R.T.-ren aurka jokatu eben etxetik kanpo. 19-24 irabazi eben gureak puntuak etxera ekariz. Hurrengo partidua, Atletico San Sebastian-Arratiko

Zekorak izango da.

Seniorrak barriz, asteburu bi libre izan dabiz. Bata urri bigarrenaren 8an, Besaya talde aurkariak huts egin eban eta. Halanda be, partidua irabazitzat emon deutse zekorrai. Hurrengo asteburuan Santanderren daukie norgehiagokea, Universidad Cantabriaren aurka.

Neskak osteran, entrenatzen jarraitzen dabe lagunartekoren bat jokatuteko gogoz. Aurten hamalau lagun alkartu dira, halanda be neska gehiago animetea eskatzen dabe.



## LIBURUA

**Haizea Aurpegián doban Begitu-lagunak****Erredakzinoa**

Hilaren 21ean, arrastiko 19:30ean, Iker Yurrebasoren *Haizea Aurpegián* liburuaren aurkezpen ekitaldia izango da Igorreko Kultur Etxean. Zertu kultur Elkarteak eta Lemoako Gaztetxeak argitaratu dabe Yurrebaso igorretarraren lana eta Zerturen beste produktu batzuen moduan, doban jasoko dabe Begitu-lagunak.

Aurkezpen ekitaldian irakurketea, irudiak, antzerkia eta musikea batuko dira, ikuskizun baten. Ikuskizunaz gozatzen doazan Begitu-lagunak liburu doban jasoko dabe, eta Begitu-lagun ez diranak, Begitu-lagun egiteko aukerea eukiko dabe bertan. Holan, Begitu-lagun barriak, *Haizea Aurpegián*, eta Zertuk ateratako produktuen sorta osoa eskuratu dabe. Aurkezpena joaterik ez daukien Begitu-lagunak, barriak, etxean jasoko dabe igorretarraren azkenengo lana.

**Haizea Aurpegián Yurrebasoren bigarren liburua**

Hau ez da Yurrebasoren lehenengo liburua. Izan be, 2005ean Ametz narrazio liburu kaleratu eban Zertu Kultur Elkarte eta Lemoako Gaztetxearen eskutik. Egilearen ustez narrazioak ez daukie zerikusi handirik "ez bada bajea erabiltzen

dala bietan personajea hazteko". Horrezaz ganera, Maite Yurrebaso arrebearen irudiak dagoz horniduta biak.

Haizea Aurpegián liburuaren muina Lemoako Gaztetxe blegan azaldutako artikulua osotuten dabe, personaje baten bame itaunai erantzuten.



Iker Yurrebaso.

## BERBALDIA

**Lexikoaren bitxitasunak erakutsi zituen Aurrekoetxea eta Bidegainek****Erredakzinoa**

Arratiera tailerraren atari moduan antolatutako hilaren 13ko berbaldian, Gotzon Aurrekoetxea eta Xarles Bidegain euskaltzain eta Euskararen Herri Hizkeren Atlasaren (EHHA) zuzendariak, atlasa aurkeztu eta berba batzuen mapak erakutsi zituen. Mapok gauza bitxiak ixten zituen agerian, adibidez, berba askok lexema bera daukiela Bizkaian eta Zuberoan eta beste bat erdialdeko lurraldeetan.

Hiru dira EHHAK daborduko kaleratu dituan liburukiak, guztira 12 izango badira be, gaika antolatuta. Atlasa egiteko, 2.857 galdera egin zituen ikerlariak 145 heritan, 7 lurraldeetan, 1.987 eta 1.992 bitartean. Holan, 830.000 datu inguru jasoz.

**Zeanuri, Dima, Lemoa eta Zeberio**

145 herri horren artean, gure eremuko lau dagoz: Zeanuri, Dima,



Gotzon Aurrekoetxea eta Xarles Bidegain.

Lemoa eta Zeberio hain zuzen be. Orain 20 urte jaso ziran datuok eta Gotzon Aurrekoetxea filologoaren ustez, "ordu antzekotasun handiagoa egoan herrien arteko hizkeretan gaur baino".

Lehenengo liburukian insektuak, arrainak, narrastiak, txoriak, piztiak, zerua eta eguzkia, eguraldia, ederra eta hotzaren inguruko berbak jasoten dira. Berbaldian, olgeta bat proposatu eben hizlariak: argazki bat erakutsi eta publikoari itaun-

du zelana esaten dan hori Arratian. Gero berba hori mapan agertzen zala erakusten zan.

**Geure Berbategie**

Publikoan, Geure Berbategie proiektuaren egileak, Jantxu Rekalde eta Angel Larrea, egoazan. Izan be, EHHAKo galdetegi hareetatik sortu zan hau proiektuau, *Arratia Inguruko Hiztegi* gauzatu dana. Irakasleok Lexiko ikasgaia emongo dabe Arratiera tailerlean.

## MUSIKEA

**Bidean ez hain galduta**

Jada urte bete baino gehiago daroan Bidean galduta taldeak aurrera darrai. Positibotzat daukie taldearen eboluzinoa eta etorkizunera be gogoz salto egiteko prest dagoz. Euren kantu batek "... eta irrikaz amesten doguna, errealidade bihurtuko da" dino, egia ete?

**Irati Urien****Zein da zuen helburua?**

**Jokin Uriarte:** Taldea ez zan helburu garbi bategaz sortu baina pentsetan dogu, Arratian ezagutzarazotea lortu dogula. Bertako ia herri guztietan jo dogu eta orain, urtetea gustauko litxakigu.

**Musikatik bizi gurako zeunkie?**

**Unai Uriarte:** Gura bai, baina gaur egun ia ezinezkoa da oso ona izan ezean.

**J. U.:** Niretzako ez da objektiboa, helburua; baina ez litzateke txarto egongo.

**Zer irudituten jatzue musikea internetetik deskargetea, top manta... eta honek danak?**

**U.U.:** nik ez dot cd bat erosi orain dala... Ondo dago talde txikienez, egiten dabena zabaltzeko. Onak izatekotan, jenteak erosi daz diskoak.

**J.U.:** Guk adibidez, myspace daukagu eta baita sare soziala dan Tuenti be. Askok lagunduten dabe; izan be, gazte gehienak daukie eta bertan egokera zein ekitaldi bidez taldearen barri idaztean, danak enteretan dira.

**Durungaldeko gaztetxe eta gazte asanbladak antolatutako "musika gaztetxeroa" proiektuan parte hartu zenuen. Zelan animau zini?**

**J. U.:** Kartela ikusi eta animau egin ginan, beste barik. Esperientzia polita izan ahal zala pentsau genduan eta holan izan zan. Igazko garagarrilean hasi zan taldea mar-txan eta proiektu hau abuztuan

burutu genduan. Hortaz, hasi barriak ginan baina bildur barik hartu genduan parte.

**Etorkizunera begira, nozko maketea?**

**J. U.:** Hurrengo pausua hori izango litzateke eta izango da. Izan be, hile honetan grabauko dogu, laster egongo da kalean.

**U.U.:** Gauza asko hartu behar izan doguz kontuan: denporea, dirua... Baina inportanteena badago, gogoia eta ilusinoa.

**Zer da zuentzat Bidean galduta?**

**J. U.:** Esperientzia bat, sensazio polit bat. Beragaz jentea ezagutu dogu, lagunak egin, beste herri batzuetako giroan murgildu... dana da positiboa. Gustetan jakun gauza bat da eta ganera, batzuetan kobrau egiten dogu. Denpora librea aprobetxetako modua da. Egia da batzuetan denporeagaz burrukan ibiltzen gara baina merezidu dau.

**Sorpresa bat baino gehiago emon dozue kolaborazioak dirala eta...**

**U.U.:** Holan da bai. Gustetan jaku jenteak igotea eta parte hartutea, ondo dago. Hasieran Ruslan eta Jon igoten ziran. Eder Arribas be igonda dago eta azkenengoz Paule Lasa igon zan Dimako jaientan.

**J. U. eta U. U.:** Amaituteko eskerrak emon gura deusaguz Igorreko Udalarri lokala ixtearren. Baita Arratian jo dogun herri guztiai, Otxandioko gaztetxeari eta abar. Tratua danetan, itzela izan dalako.



Bidean galduta taldea.





## ZEHARKALDIA

# Ubidetik Zeanurira, oinez, bakea barriztatzeko

Larren Mankomunitatearen V. Zeharkaldia eta udalen batzarra urri bigarrenaren 29an egingo dira.

### Jon Urutxurtu

Urri bigarrenaren 29an, zapatuan, egingo dabe urteroko larreen mankomunitatearen batzarra Zeanuriko eta Ubideko Udalak, eta, bide batez, Zeanuri-Ubide Larreen Mankomunitatearen V. Zeharkaldia egiteko aukerea be eskeiniko da. Ganera, aurten, zeharkaldi hau Bizkaiko Foru Aldundiak bultzatutako Ondarearen Europako Jardunaldien egitarauan barruan sartu da.

Orain dala gizaldi bat baino gehiago Zeanuriko eta Ubideko Udalak alkartu egiten dira, urte batean udaletxe batean eta hurrengoan bestean udalerri bakoitzean izena emondako abelburuen zenbakiak aurkezteko eta kontuak egiteko. Urtero errepikatzen dan ohitura eta betebeharrak

da. Dirudianez, batzar horren zergaitia, bazka-larreen aprobetxamenduaren inguruan udalerri biak gizaldietan —gitxienez XVI. gizalditik— izan dabean ailegoai amaiera emoteko adostutako akordioa da.

Udal bi horreen batzar hori aprobetxatuz, orain dala bost urte, Zeanuriko eta Ubideko alkar-teak udalerri bien arteko zeharkaldia antolatzen dabe, Gasteiz eta Bilbo lotzean ebazan Erdi Aroko galtzadea jarraituz. Aurten, urte-rea Ubideko plazan, udaletxearen aurrean izango da goizeko 10:00etan. Plazatik abiatuz, Erdi Aroko galtzadeak jarraitzen eban bidetik joango dira parte-hartzaileak, Saldropotik, Ipinaburutik eta Undurratigatik igaro ostean, Zeanuriko plazara heltzeako. Zeharkaldia burutzerakoan, hamabiren bat



Ubide.

kilometro eroango dabez oinetan ibiltariak, baina ziur ziteari erantzutea mereziduko dauala, Ubide eta Zeanuri lotzean ebazan galtzadea eta bere inguruan azaltzen dan ondare naturala eta historiko-etnografikoa ezagutzeagaz batera, udagoinean naturak azaltzen dauan koloreen sinfoniaz gozatzeko aukerea izango dabe eta.

Ibilaldiari amaiera emoteko 13:00etan, Zeanuriko eta Ubideko zinegotziak batzartu egingo dira Zeanuriko udaletxean; bilera horretan idazkariak udalerri bakoitzean izena emon daben abelburuen kontuak egingo dabez,

bilera agiria sinatu eta, ostean, danak batera bazkaltzera joango dira. Datorren urtean gauza bera egingo da, baina Ubideko udaletxean, eta bazkaria ordaintzea be ubidarrai egokituko jakie.

**Ibilaldiari buruzko zehetasunak**  
**Eguna:** Urri bigarrenaren 29a, zapatua.

**Izena emotea:** Ubideko plazan, doban.

**Autobus zerbitzua (doba):** 09:00etan Zeanuriko plazatik Ubidera, zeanurizarrak edota Zeanurin kotxea ixten dabenak Ubideko abiapuntura eroateko. 1 €. 13:30ean

Zeanuritik Ubidera, ubidarrak edota Ubiden kotxea itxi dabenak eroateko. 1 €.

**Urteera:** 10:00etan.

**Ibilbidea:** 12 kilometro inguru. Bi ordu eta erdi inguruko iraupena, marxa lasaian.

**13:00etan,** Ubideko eta Zeanuriko Udaltzatzen batzarra Zeanuriko Udaletxean bazka-larreen mankomunitateko kontuak egiteko eta bilera agiria sinatzeko.

**Antolatzaileak:** Ipizki Taldea, Joko Alai Elkarte, Amexier Mendi Elkarte eta Ortuzar Ubideko Gazte Asanblada.



Udalen arteko batzarra.

## DUNBA

# Ingeles barnetegia Morgan

### Inazio Zubizarreta ikastetxeko ikasleak

Urri lehenengoak 26an Igorre eta Orioko neska mutilak Morgako ingeles barnetegira joan ginan.

Ez geunkan ingelesa ikasteko gogo handirik baina sano ondo pasau genduan azkenean olgetan ingelesa ikasi gendualako.

Lehenengo egunean ingurura ohitzen eta lagun barriak aztertzen gengoanean atea apurtu genduan, udalekuari hasiera txarra emonaz.

Bigarren egunean ondo portau ginan eta sano pozik egon ziran danak geugaz. Eguaztenean be ondo portau ginan eta oso ondo pasau genduan. Eguenean kutxa bat topau genduan, eta opariak egoazan bertan, ikaragarria izan

zan, misterioz jositako kutxa harek gauza eta duda asko itxi euskuzan, azkenik aurkitu genduan lekuan itxi genduan, beste batzuk be guk sentidu genduan sentidu dagien.

Azken egunean diskoteka egon zan, baina gitxi iraun eban, ligatzen hasi ginanerako ohera joan behar izan ginan, errealidetik amesetarako biajea hasiz.

Ondoen gengoanean azken eguna heldu zan, danai agur esan eta autobusa hartu eta triste xamar etxera itzuli ginan. Heldu ginanean amari mosu handi bat emon eta aitari lasterkako



I. Zubizarreta ikastetxea.

mosu bat emon ostean bertan izandako bizipenak kontetan hasi gintzakezan, baina betiko legez dan ez geuntsen kontau, sekretuak gure ganbaratxuan gorde genduzalako, of course!!

**RUGBY TABERNA**

•Egin zaitez bazkide!  
•09:30etik zabalik  
•Asteburetan pintxo bereziak

**ARRATIKO ZEKORRAK**

arratiko.zekorrak@gmail.com  
http://santxisme.blogspot.com/

**arratiako instalazioak s.l.**

Berokuntza - Iturgintza - Gasak

Aireztatze sistemak - Aire zurgitze zentralizatuak  
Tubak kontrolatzeko zerbitzuak eta mantentze lanak

Igorreko Industriak, Pab. 07  
Tel. Fax 94 679 62 76  
919 734 616  
48143 Igorre Biskai

**GERTU-GERTU**

Tinta-kartutxoa,  
tonerra eta mugikorra  
birzikiltzako Zerbitzu Borria  
Zeberion

ECO BOX

Tinta-kartutxoa  
Tonerra  
Mugikorra

BILKETA GUNEA, ORAIN "GERTU-GERTU":  
Zeberriko Udaletxea  
Santutolabarri Eskola Publikoa

\* Inprimaketa-hondakinak (toner, tinta) egora onean egon behar dira. Ez dira onartzen bustiak, apurturik edota herdoituta inprimaketa-hondakinak.

Zeberri Udaletxea  
Udaletxea 21 BiService



## AGENDEA

**URRI BIGARRENAK 18  
IGORRE**

19:00etan, Arratiera ikastaroa hasten da. I.KEn.

**LEMOA**

19:00etan, "Arianpeko kobazuloa" arkeologia indusketen ganeko berbaldia Jubiladuen etxean.

**URRI BIGARRENAK 19  
AREATZA**

18:00etan, Biodantza ikastaroa hasten da.

**IGORRE**

18:45ean Joseba Ariznabarretaren berbaldia egoera politikoaren ganean Kultur Etxean.

**URRI BIGARRENAK 21  
IGORRE**19:30ean, Iker Yurrebasoren *Haizea Aurpegi*an liburuaren aurkezpena Kultur Etxean.**URRI BIGARRENAK 22  
AREATZA**08:00etan eleizako portikoan. Aizkorni-Urbi mendira urteerara. Frakazuri Gazte Asanbaldak antolatuta. Apuntetako izen-abizenak [frakazuri@hotmail.com](mailto:frakazuri@hotmail.com) helbidera bialdu.23:00etan, DJ Breakers, *chill out* musika Bixer tabernan.**DIMA**

10:30ean, Andraizeak antolatuta Barreterapia ikastaroa.

**LEMOA**

Ganzabalek antolatuta, umeen urtererea Alberta (868 m.).

**URRI BIGARRENAK 23  
ARRATIA**

Arratia-Otxandio-Ubide XII. Mendizale Eguna. Zumeltza-Igorre.

**IGORRE**17:00etan, umeentzako zinea *Los Pitufos* Lasarte Aretoan. 19:30ean, zinea *Beginners* Lasarte Aretoan.**URRI BIGARRENAK 24  
LEMOA**

Jubiladuen eguneko bazkarirako izena

**Cantabile Kuoro Finlandiako abesbatza Igorren 29an**

Finlandiako Cantabile Kuoro abesbatza Igorreko Kultur Etxean egongo da hilaren 29an, 20:00etan. Finlandiar abesbatzak 43. Tolosako Abesbatza Lehiaketan parte hartzean dau.

Ruut Kiiski-ren zuzendaritzapean abesbatzak finlandiar musika garaikidea lantzean dau batez be, baina baita sasoi desbardineta lan orkestratuak, jazz eta rockeko moldaketak barne. Abesbatza 45 abeslarik osotuten dabe.

Ostera, Luis Iruarizaga Abesbatzaren konbidaua izango da Aurizberriko Auzperri Abesbatza eta hilaren 22an, Igorreko Kultur Etxean 20:00etan emongo dau kantaldia. Bagilean Igorrekoak egon ziran Aurizberri eta oraingoan nafarrak emongo dabe kontzertua gurean. Amaieran talde biak batera kantauko dabez kantu batzuk.



emoteko azken eguna.

**URRI BIGARRENAK 26  
LEMOA**

16:30etik 19:30era, KZ Guneako tutorea bertan egongo da.

**URRI BIGARRENAK 27  
BEDIA**17:00etatik 19:00etara, tailerra *Palo de Lluvia* libururtegian.**URRI BIGARRENAK 28  
ARTEA**

19:00etan, Arratiako Eleizearen Eguna Arteako parrokiari.

**IGORRE**

19:00etan, Etxerat-ek antolatuta presoan aldeko konzentrazioa.

**ZEANURI**

Joko Alaigaz 30era arte astegoiaren pasa. Moncayo (2.314 m.).

**URRI BIGARRENAK 29  
LEMOA**

Udalak antolatuta jubiladuen eguna. 12:30ean, Mezea. 13:00etan, Durundu Barri Dantza taldea. 14:15ean, Bazkaria. 16:30ean, Pelota partiduak.

Ganzabalek antolatuta urteera zemendiaren 1a arte, Universales, Javalambre, Alto Tajo; Caimodorro (1935 m), Javalambre (2020 m); Mogorita (1866 m) Sierra Alta (1856 m).

**UBIDE/ZEANURI**

10:00etan, Ubide-Zeanuri Larreen Mankomunitadearan ibilbidea. Ubideko plazan.

**URRI BIGARRENAK 30  
IGORRE**17:00etan, umeentzako zinea *Winnie the Pooh* Lasarte Aretoan. 19:30ean, zinea *Arriya* Lasarte Aretoan.**ZEMENDIAK 1  
ARTEA**

Frontenis txapelketan izena emoteko epea itxi egingo da. Artea Kirol Kultur eta Euskara Taldeak antolatuta.

## IRAGARKI LABURRAK

**SALDU  
SALTZEAN DOT**

Vespa Iris 200 motorra. BI-9307-BL 650€ren truke. Kapritxu bat. Deitu 645 006 293 telefonora.

**SALTZEAN DOT**

Autoa saltzean dot. Ford Focus, 1.8 Trend, 115 cv. Diesela. 39.000km. Arrisku orotariko aseguruagaz (2012ko zezeilera arte). 9.000€. Telefonoa 635 007 632.

**SALTZEAN DOT**

Mendiko bizikletea (BTT) saltzean da. 10-13 urterako. Gibi ibilita. Prezioa: 60€. Interesdunak deitu 634 410 259 (Luis) telefonora.

**ETXEA SALGAI**Areatzako Askatasuna kalean 125 m<sup>2</sup>ko pisu ederra salgai. Telefonoa: 646 448 869.**TXAKURRAK SALGAI**

Maiatzean jaiotako 3 txakur kume salgai. Arrazea: Alemaniako artzain- txakur mestizoa. Ama pedigriduna eta aita mestizoa. Deitu 636 132 741 telefonora.

**LAN ESKEINTZA  
ESTETIZISTEA BEHAR DA**

Igorreko zentro estetiko baterako estetizistea behar da. Interesdunak 635 704 739 telefonora deitu.

**DANERIK  
APARTAMENTUA ALOKAIRUAN**

Suancesen apartamentua alokairuan. Asteburu, astebarru zein edozelan alokatzeko. 4 personentzako. Apartamentu barria. Telefonoa 677 497 985.

**Zeozer saldu, erosi, alokatu, trukea egin edo behar edo behargin bila bazagoz, bidali asko jota 25 berbako mezu bat [begitu@topagunea.com](mailto:begitu@topagunea.com)-era. Mezuak doan dira.****Begitu-lagunen txokoa****Zenbaki honetako saridunak:**

1

**Igorreko Udalak emondako Fasioren Mendea CD-DVD-Liburua.**Irene Bilbao (Igorre)  
Mikel Diez (Areatza)

2


**Igorreko Udalak emondako Gontzal Mendibilen CD bana.**Lorea Arribas (Igorre)  
Nerea Goioaga (Igorre)

Zerturen argitalpenak jasoko dozuz, zozketetan sartuko zara. Ehun zenbaki eta ehundaka lagun.



## DENPORA-PASA

IMAN OLATU




### EZKERRETIK ESKOIERA

1.- Materiaren oinarriko hiru egoeratako bat. Bilo. 2.- Bederatzi erromatar. Ameseta. 3.- Zotzaldia. 4.- Pozik. Errepetiduta, kontuz. 5.- Arkakuso. Bokala. 6.- Letra bat. Eperdiko zulo. 7.- Ospa, alde. Edabe mota bat. 8.- Umeen berbetan, ogia. Erbioa. 9.- Heldu, sasoiara heldutakoaz esaten da. Gauza.

### GOITIK BEHERA

1.- Gizon. Umeen berbetan, min. 2.- Ardura. Birritan, Afrikako tanbor antzekoa izentetako onomatopeia. 3.- Sufrea. Zirt edo... Italiako ibaia. 4.- Nekea. 5.- Haur. Uretan hil. Letra bat. 6.- Xabier... euskal abeslari eta poeta izana. Momentua. 7.- Esakune. Zeregin.



Topau Euskaltel Euskadiko zazpi txirindulari.

U	R	T	A	N	E	B	I	L	O
S	E	N	D	A	I	R	U	A	F
K	A	U	A	B	R	E	T	O	L
I	R	S	U	A	G	A	V	E	A
T	Z	A	T	I	M	O	S	E	T
Z	A	T	O	A	A	R	G	P	U
A	G	R	U	P	R	E	H	E	S
G	O	U	B	A	T	L	O	R	E
O	S	J	E	T	I	N	O	E	G
R	O	N	A	L	N	U	K	Z	A
K	I	R	R	O	E	S	I	G	A
E	L	O	Y	T	Z	X	W	A	J
T	I	K	A	N	T	O	N	S	O
S	A	K	U	R	R	U	X	T	R
U	P	O	L	A	N	G	I	A	N

# AKI MI KO

Iman Olatu



Recreativos Gubi S.L.  
Angel Larrea  
Zornotza Tlfnoa 649 86 95 36

Igorren  
**ARKITEKTOA**  
Aitzol Aurrekoetxea Pujana  
Lehendakari Agirre 23, behea  
aitzol@coavn.org - 675 705 111

**MERKA LABELA-HARATEGIA**  
Eusko produktok  
• Turriozak  
• Odoiestatik  
• Baskontzak  
• Saltzitak  
• Hamburgesak  
Arartako produktok  
• Baserriko okela  
• Otziak  
• Baserriko arrautzak  
• Turrikiak  
• Harroak  
• Geroika fruta eta barazkiak  
Markakide lekuetan  
Uhartedun Agirre 21  
94 621 62 28

**BIXER TABERNA**  
Beko kalea, 2 - Telf. 94 631 73 65 - VILLARO

**ARRATIA AUTOESKOLA**  
Ikaslea eskolaz zain ordenez  
Gabe, 10 - 48140 Igone (Bizkaia)  
telefonoa 94 631 54 31, Faxa 94 631 70 83  
e-posta: urrak@euskalnet.net

Beer & Edariak s.l.  
HEINEKEN SOLARES  
Polgo Mendotza, n.º 3, 48530 LEMCIA, Euzkadi  
Tel. 090 482 8390 fax 090 296 727

ALKOHOLIKO ANONIMOAK  
**ARRATIAKO TALDEA**  
Arazoak alkoholagaz?  
Arazoak badaukazuz,  
lagundu ahal zaitugu

**ELEKTROARGI ELEKTRIZITATERA**  
Instalazio elektrikoak • Aberiak  
Telekomunikazioak  
Material elektrikoak  
Juan de Ajuriagerra 1 Behea 48330 Lemoa  
Tlfnoa-Faxa 94 6312576 Mug. 647405115

**Erreka Garraioak**  
Mugikorra 629 465 335  
Irantze eznea, 12 LERION  
Tlfnoa: 94 631 50 82 Faxa: 94 631 51 81

\*KIRRU\* ILEAPANDEGIA  
**SOLARIUM**  
Roberto eta Rosana  
Sabino Arana, 38 bajo - 48140 IGORRE (Bizkaia)  
• 94 631 92 00

Igorre  
BATZAR EGUNAK:  
epautesak 20etatik 22etara  
Udaltzako arkapetan  
EPA-ko lokalak  
KONTAKTATZENO  
TELEFONOA:  
690 139 044

**INCOESA**  
Tel. 94 631 32 75  
Faxa. 94 631 37 66  
Bidekoetxe 18 48.390 Bedia

Bar Restaurante  
**Montero**  
Eguneko menua  
euskal sukaldaritza,  
sukaldaritza bolibiarra  
eta brasildarra  
Zelaia 19 - Arantzazu - 619 903 653



## ANGELINES ROJO

**"Jente on asko ezagutu dot, bezeroak baino lagunak dira"**

Mende bat baino gehiago zabalik egon ostean, Arteako Rojo tabernak (azkenengo 40 urteetan Angelinesen taberna moduan gehiago ezagutzen zana) atek zarratu ditu. Ia erritua zan askorentzat Gorbeiatik bajatukeran Angelinesenean bazkaldutea edo salda beroa hartzea. Angelinesek berak 60 urte emon ditu tabernearen barrearen atzean eta urte honeetan guztietan edozein ordutan eskeintzen eban Angelinsek zer jan edo edan. Tabernearen fama Arratiako mugak gainditu eta Euskal Herriko leku askotara heldu zan, bezeroak baikielako etxean bezala jaten zala Angelinesenean. Bezeroak lagun bihurtu ziran aspaldi eta haren bisitak espero ditu orain Angelinesek.

**Erredakzinoa****Zenbat urtez egon da zabalik taberna?**

Ez dakit. Berrehun urte edo? Nire aitita eta aititaren aita be hor bizi ziran. Orain 100 edo 150 urte, taberna goitik behera bajatu zan; hau da, lehen kortea egoan lekura. Nik neuk maiatzean 60 urte egin nebazan tabernan beharrean.

**Zer egongo da orain lehen Angelinesen taberna egoan lekuan?**

Herriko kuadrila batek txoko bat egiteko hartu dau. Barriztu eta moderno ipiniko dabe, gaur egungo jenteari gustetan jakon moduan.

**Taberna honen famak Arratiako mugak gainditu ditu. Zein izan da zure sekretua?**

Betikoa izatea. Daukan historia luzeagaitik eta jatekoa betiko moduan, hemengo modu tradizionalan emon dogulako izan

da famadua nire ustez. Gorbeiatik hur dagoanez, jente asko pasau da herritik eta tabernatik.

Lehen seminarioa egoan eta jente asko etorten zan Arteara. Eta orain jentea Areatzako bainuetxera etorten da eta igarten da baita be.

**Zuk taberna hartu zendu-netik hona aldatuko ziran gauzak...**

Bai. Askok. Guk segidu dogu lehengo estilora. Guk jaten emoten genduan ez dogu inoz aldatu. Guretzat denporaldi ona izaten zan jentea Gorbealara joaten danean; hau da udagoienean, neguan eta udabarran. Udan jenteak gurago izaten dau hondartzara joatea. Eta urte sasoi horreen barruan jai eta opor egunak ziran onenak, jakina.

**Zenbat jenterentzat emoten zenduan jaten egun on baten?**

Berogeirentzat edo. Eta ogitar-tekoak be emoten genduzan

*"Sano jente ona ezagutu dogu eta danak dabiz deika. Hori eskertu gura dogu"*

*Tabernan bertan bizi izan da Angelines urte askoan, ordu guztiak lanordu*



nahikotxu. Aspaldion aldatu egin da dana, baina osterantzean, bazkaria, zeozer piketako, ogitartekoren bat... Batzuetan, zortzi batera. Hori lehen izaten zan, orain apurtxu bat gitxiago.

Festetan eta, etorten ziran danak txikitoak hartzean eta... lehen txikitoak eta orain zuritoak. **Hori da aldatu dan gauze-tako bat, ezta? Lehen ardoa gehiago edaten zala orain baino.**

Bai. **Eta jateko ohituretan aldatu da ezer?**

Guk betikoa emon izan dogu eta gurera datorren jenteak badaki zer emoten dogun guk.

**Hainbeste urtetan egongo ziran sasoi onak eta txarrak. Zeintzuk gogoratzen dozuz on moduan eta zeintzuk txar moduan?**

Gogorra da osasunik ez dagoanean. Osasuna egon ezkerro datorrenari aurre egiten jako.

Nik sasoi txarrik ez dot gogoratzen. Txikitan eskolara joaten nintzan, aita eta ama egoten ziran tabernan, izeko eta osabea be bai, ze hemen bizi ziran. Oraingo bizimodua tristeagoa da.

**Tristeagoa? Zergaitik?**

Lehen jentea alaiagoa zan. Alda-

tu egin da gauzea...

Niri jaten emotea baino gehiago taberna gustau egin jata beti. Jenteagaz berba egitea eta. Orain etxean bizi naz, baina lehen tabernan behar egin eta bizi be bertan. Ha ta guzti be, etxea taberna ondo-ondoan dagoanez, egunero joan naz tabernara. Ez naz joan gaixorik egon naze-nean. Ama be orain hiru urte hil zan eta... baina joan eta etorri egunero.

**Tabernan herrian gertatutako guztiaren barri eukiko zenduan.**

Ez pentsau. Tabernan behar asko egin behar izaten zan. Bertan bizi nintzanez, danak ziran lanordu. Eguna hartzean genduan zeozer egoalako etxean izaten zan: edo ezkontzaren bat, edo holango gauzaren bat. Baina astean egun fijo bat, egundo be ez. **Hainbeste urtetan bezeroak lagun bihurtuko ziran.**

Bai. Oso jente ona ezagutzen dogu. Orain be deitu eta deitu dabiz telefonoz eta guk asko eskertzen dogu hori. Askok, askok. Guk hemen jarraituten dogu eta jentea gu agurtzera etortea espero dogu. Urte asko izan dira eta sano jente ona ezagutu dogu, bezeroak baino lagunak diranak.

Arratia, Ubide eta Zeberriko euskera eta kulturearen alde

**Hamabostero Begitu zure etxean eta Arratia inguruko Hiztegia doban**

**Egin zaitez zeu be Begitu-lagun**

Etxean jasoko dozuz Zertu Kultur Elkarteak ataratako produktuak. Hamabostean behin, sariketa-zozketan parte hartuko dozu.

Izen Abizenak

Helbidea

Telefonoa

E-posta

Kontu korronteko 20 digitoak

Urteko kuota aukeratu:

■ 35€

■ 55€

■ 75€

Moztu eta bidali helbide honetara:  
Zertu Kultur Elkarte, Herriko plaza 24, 48142 Artea